3/2023 Ebazpena, maiazaren 29koa.

Resolución 3/2022, de 29 de mayo.

Espedientea: RMT 3/2023

Expediente: RMT 3/2023.

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak, lehen adierazitako kideek osatuak, honako **EBAZPEN** hau eman du

jaunak bere garaian Ekintzailetzaren eta Enpresa Lehiakortasunaren Zuzendaritza Nagusian aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaerari emandako erantzunaren aurrean jarritako erreklamazioaren aurrean. Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia andreak adieraziko du zein den Batzordearen iritzia:

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por

frente a la respuesta dada a la solicitud de acceso a información pública en su momento planteada ante la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial Actúa como ponente Dña. Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia, quien expresa el parecer de la Comisión:

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.** 2023ko apirilaren 6an,

**jaunak** erreklamazioa aurkeztu zuen Batzorde honetan. Bertan adierazten zuenez, bere garaian Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiari egindako informazio publikoa eskuratzeko eskaera onartu zen arren, emandako erantzuna partziala zen, eta, beraz, ez ziren bete bere asmoak.:

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.** Con fecha 6 de abril de 2023,

interpuso reclamación ante esta Comisión en la que señalaba que, aunque en su día se aprobó la solicitud de acceso a información pública que había formulado a la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial, la respuesta que se le había ofrecido era parcial y por lo tanto no se habían satisfecho sus pretensiones.

**BIGARRENA.** Egia esan, 2023ko martxoaren 14an aurkeztutako idazkiaren bidez, jaunak informazio publikoa eskuratzeko eskaera egin zuen, honela:

*·Duela gutxi prentsan eta prentsa ohar baten bidez argitaratua 2022an zehar eta 2023ko lehen hilabeteetan Bizkaian izan duten Foru Aldundia lurraldetik kanpoko 22 startup ezarri zituen, nire kazetari lanaren esparruan 22 startup horien izen zehatza jakin nahi dut"*

Eskaera horri Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko martxoaren 24ko Ebazpenaren bidez erantzun zitzaion. Ebazpen horren bidez, eskatutako informazioa eskuratzeko baimena eman zen. Eranskinean, honela zioen hitzez hitz:

*"GAIA.-*
*informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaeraren erantzuna.*

*Eskabidean aipatzen den prentsa-oharrean (Bizkaiko Foru Aldundiak martxoaren 6an argitaratua) adierazten denez, 2022an "17 startup erakarri ziren Bizkaira, eta horiei beste 8 gehituko zaizkie urteko lehen hiruhilekoan". Beraz, argitu behar da 2023ko lehen hiruhileko honetarako aurreikusita dauden 8 startupak lan- eta zehaztapen-fasean daudela, eta, beraz, ez dagokiola horien izenak argitaratzea.*

*Era berean, adierazi behar da 2022an erakarritako 17 startupetatik, kasu guztietan Bizkaian ezarri badira ere enpresa berriak eratuz edo egoitza soziala lurralde horretara aldatuz, garapen-fase desberdinetan daudela.*

*Beraz, gure ustez, hedabideetara lekualdatzeari begira, berariaz identifika daitezke sortzeko prozesuan dirulaguntza publikoak eskuratu dituztenak. Hori 5 kasutan gertatu da eta horiek 14 lanpostu sortu dituzte Bizkaian;*

**SEGUNDO.** Ciertamente, mediante escrito presentado el 14 de marzo de 2023, el solicitó acceder a información pública en los siguientes términos:

*"Habiéndose publicado recientemente en prensa y mediante nota de prensa de la Diputación que a lo largo de 2022 y los primeros meses de 2023 en Bizkaia se han implantado 22 startups de fuera del territorio, en el marco de mi trabajo como periodista quiero conocer el nombre concreto de estas 22 startups"*

A la citada solicitud, se contestó mediante Resolución de 24 de marzo de 2023, de la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial, por la que se autorizaba el acceso a la información demandada, que se detallaba en Anexo con el siguiente tenor literal:

*"ASUNTO.- Contestación a la solicitud de acceso a información pública, presentada por*

*En la nota de prensa a la que se hace referencia en la solicitud, publicada por la Diputación Foral de Bizkaia el pasado 6 de marzo, se indicaba que en 2022 se "contribuyó a la atracción a Bizkaia de 17 startups a las que se sumarán otras 8 en el primer trimestre del año", por lo tanto aclarar que las 8 startups a las que se hace referencia como previstas para este primer trimestre de 2023, se encuentran en fase de trabajo y de concreción, por lo que no corresponde publicar sus nombres.*

*Asimismo, cabe indicar que de las 17 startups atraídas en 2022, si bien en todos los casos se ha materializado ya su implantación en Bizkaia mediante la constitución de nuevas empresas o el traslado de su domicilio social a este Territorio, se encuentran en diferentes fases de desarrollo.*

*Por lo que entendemos que, de cara al traslado a los medios de comunicación, se pueden identificar expresamente aquellas que han accedido a subvenciones públicas en su proceso de creación. Esto ha ocurrido en*

*horiek startup hauei dagozkie:*

*5 casos, que han creado 14 puestos de trabajo en Bizkaia y que corresponden a las siguientes startups:*

- *WISEGUYS IBERIA SL -A Wiseguys early stage startup-en Europako azeleragailu eta inbertitzaile nagusietako bat da SaaS (Software as a Service) B2B eremuan. Bizkaian enpresa subsidiario berri bat sortu du, eta, horren bidez, azelerazioko nazioarteko programak garatzen ari dira Bizkaian.*

- *WISEGUYS IBERIA SL -A Wiseguys es una de las principales aceleradoras e inversoras europeas en early stage startups en el ámbito de SaaS (Software as a Service) B2B. Ha creado una nueva empresa subsidiaria en Bizkaia, mediante la cual están desarrollando su programas internacionales de aceleración en Bizkaia.*

- *POLY REWARDS SL- Startup hau Cash Back enpresa bat da, eduki digitalak eta internet garatzen dituena.*

- *POLY REWARDS SL- Esta startup es una empresa de Cash Back, dedicada al desarrollo de contenidos digitales e internet.*

- *ANJANA DATA MARKETPLACE, S.L Startupde, datua gobernatzeko irtenbide berritzaile eta disruptibo propioa eboluzionatu, mantendu eta merkaturatzeko sortutako produktua. Startup hau Pragsis Bidoop-en spin off bat da.*

- *ANJANA DATA MARKETPLACE, S.L Startup de producto creada para evolucionar, mantener y comercializar su propia solución innovadora y disruptiva de gobierno del dato, Esta startup es una spin off de Pragsis Bidoop.*

- *ALVEARI UM VR SL - Alvearium blockchain oinarri teknologikoa duen 3D eta VR metabertso bat da.*

- *ALVEARIUM VR SL - Alvearium es un metaverso en 3D y VR con una base tecnológica blockchain.*

- *VANLOCKERS SL- Vanlocker startupa bidaiariek helmuga bat bisitatzeko orduan izaten dituzten bi arazo nagusiri irtenbidea emateko sortu da; bidaiatzeko orduan ekipajeak dakarren zamari eta ostatuen eta garraiobideen arteko ordutegi-desorekari. Vanlockerrek garatutako "Kontsigna mugikorraren" ereduak balio handiagoa ematen dio bidaiariari, ohiko ekipaje-kontsignei mugikortasunaren itxura aplikatuta*

- *VANLOCKERS SL- La startup Vanlocker surge con el objetivo de dar solución a dos problemas principales con los que se encuentran las personas viajeras a la hora de visitar un destino; la carga que supone el equipaje a la hora de viajar y el desajuste horario entre los alojamientos y los medios de transporte. El modelo de "Consigna Móvil" desarrollado por Vanlocker genera más valor para la y el viajero, aplicando el aspecto de la movilidad a las consignas de equipaje tradicionales.*

*Erakarritako gainerako startupei dagokienez, horiei buruzko informazioa argitaratuko da, beren komunikazio-planen arabera eta dirulaguntza publikoak eskuratzen dituzten neurrian".*

*Respecto al resto de las startups atraídas se irá publicando información sobre las mismas de acuerdo con sus propios planes de comunicación y en la medida que accedan a subvenciones públicas."*

Erantzun honen aurrean, aurreratu dgun bezala, jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen, eskainitako erantzunak bere eskaerari guztiz erantzuten ez ziola ulertu zuelako. Bere idazkian berariaz esaten du:

Ante esta contestación, como adelantábamos, el presentó reclamación por entender que la respuesta ofrecida no respondía totalmente a su solicitud. Señala concretamente en su escrito:

*"Informazio publikoa eskuratzeko nire eskaera onartu zen arren, erantzuna partziala da, eta informazioaren zati bat ezkutatu egiten da, Gardentasunari buruzko Legean jasotako arrazoietako batekin ere bat ez datorren arrazoi batengatik. 17 startup daudela ziurtatzen da, baina horietako bosten izenak baino ez dira eskaintzen, beste 12ak isilpean gorde beharko balira bezala".*

*"Aunque se aprobó mi solicitud de acceso a información pública, la respuesta es parcial y se oculta parte de la información por una razón que no se corresponde con ninguno de los motivos recogidos en la Ley de Transparencia. Se asegura que hay 17 startups pero solo se ofrece el nombre de cinco de ellas, como si las otras 12 debieran mantenerse en secreto."*

HIRUGARRENA. Espedientea eta horri buruzko txostena Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiari eskatuta, apirilaren 18an jaso ziren Batzordean. Bidalitako dokumentazioan, egun horretan bertan egindako txostena dago, honako eduki hau jasotzen duena:

TERCERO. - Solicitados el expediente e informe al respecto a la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial, estos se reciben en la Comisión el 18 de abril. En la documentación remitida consta informe emitido en esa misma fecha con el siguiente contenido:

*"(..)*

*AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOARI EMANDAKO ERANTZUNA*

*Eskatzaileak, jaunak, erreklamazioan adierazten duenez, "informazio publikoa eskuratzeko nire eskaera onartu zen arren, erantzuna partziala da, eta informazioaren zati bat ezkutatu egiten da, Gardentasunari buruzko Legean jasotako arrazoietako batekin ere bat ez datorren arrazoi batengatik. 17 startup daudela ziurtatzen da, baina horietako bosten izenak baino ez dira eskaintzen, beste 12ak isilpean gorde beharko balira bezala".*

*Egia da aurkeztutako eskabideari emandako erantzunean ez zela aurkeztu Bizkaira erakarritako startup guztien izen zehatza, baina justifikatu zen zergatik ez zen aurkeztu eskatutako informazio guztia, eta jarraian zehatzago azalduko dugu kontu hori.*

*Startupak Bizkaira erakartzeko jarduerak BEAZ foru-sozietateak egiten ditu, eta haren helburuen artean dago Bizkaiko berrikuntza- eta ekintzailetza-ekosistema bultzatzea. Horretarako, enpresak erakartzeko hainbat ekimen garatzen ditu, besteak beste, Bizkaian eskaintzen diren laguntza-zerbitzu eta -programa guztiak modu integral eta*

*"(..)*

*RESPUESTA A LA RECLAMACIÓN PRESENTADA*

*En su reclamación actual el solicitante, , indica que "Aunque se aprobó mi solicitud de acceso a información pública, la respuesta es parcial y se oculta parte de la información por una razón que no se corresponde con ninguno de los motivos recogidos en la Ley de Transparencia. Se asegura que hay 17 startups pero solo se ofrece el nombre de cinco de ellas, como si las otras 12 debieran mantenerse en secreto."*

*Si bien es cierto que en la respuesta a la solicitud presentada no se aportó el nombre concreto de todas las startups atraídas a Bizkaia, si se justificó por qué no se aportaba la totalidad de la información solicitada, cuestión que se explica a continuación con mayor detalle.*

*Las actividades de atracción de startups a Bizkaia son realizadas por la sociedad foral BEAZ que tiene entre sus objetivos impulsar el ecosistema de innovación y emprendimiento de Bizkaia para lo que desarrolla diferentes iniciativas dirigidas a la atracción de empresas, entre las que se incluyen la comunicación de una manera integral y proactiva todos los*

*proaktiboan komunikatzea.*

*servicios y programas de ayuda que se ofrecen en el territorio de Bizkaia.*

*Jarduera horien helburua da Estatuko, Europako edo beste herrialde batzuetako eskualdeetako ekintzaileek gure ekosistema ezagutzea, hazteko ahalmen handia duten enpresa teknologiko berriak gure lurraldera erakartzea eta horien atzean dagoen talentu ekintzailea eta inbertitzailea erakartzea. Horretarako, lan koordinatua egin behar da hainbat sail eta erakunde publikorekin, bai eta Bizkaiko enpresa traktore eta erreferenteekin ere, ekosistemari sendotasuna eta egonkortasuna ematen baitizkiote, ekintzaileek asko baloratzen baitituzte.*

*Estas actuaciones tienen como finalidad que las personas emprendedoras de otras regiones estatales, europeas o de otros países conozcan nuestro ecosistema, atraer a nuestro territorio la constitución de nuevas empresas tecnológicas con alto potencial de crecimiento y el talento emprendedor e inversor que hay tras ellas. Esta tarea implica un trabajo coordinado con distintos departamentos y organizaciones públicas, e incluso con empresas tractoras y referentes de Bizkaia que aportan al ecosistema una consistencia y solidez muy valoradas por las personas emprendedoras.*

*Bizkaian kokatu nahi duten ekintzaileak eta enpresak erakartzeko prozesu hori fase desberdinetan garatzen da, hasierako harremanetik Bizkaian instalatu arte, gure lurraldean jarduera hasi arte eta/edo dirulaguntzak eskuratu arte.*

*Este proceso de atracción de personas emprendedoras y empresas interesadas en establecerse en Bizkaia se desarrolla en diferentes fases desde el contacto inicial hasta su instalación en Bizkaia, el inicio de la actividad en nuestro territorio y/o el acceso a subvenciones.*

*Prozesu horretan guztian, BEAZen eta ekintzaile edo enpresa bakoitzaren arteko harremana, bai eta BEAZek proiektu bakoitzari buruz eskuratzen duen informazio desberdina ere, ulertzen da ez dela sarbide publikoko informazioa, eta informazio hori jendaurrean zabaltzeak, sustatzaile eta/edo enpresa bakoitzaren komunikazio-planetatik kanpo eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza publikoak eskuratu gabe, startup horiei eta haien estrategia korporatiboei benetako kalte eraginkorra eragin diezaiekeela.*

*Durante todo este proceso, la relación entre BEAZ y cada persona emprendedora o empresa, así como la diferente información a la que accede BEAZ sobre cada proyecto, se entiende que no es una información de acceso público y que la difusión pública de esta información al margen de los propios planes de comunicación de cada persona promotora y/o empresa y sin darse la circunstancia de que hayan accedido a subvenciones públicas de la Diputación Foral de Bizkaia se considera que puede conllevar un perjuicio real y efectivo para estas startups y sus estrategias corporativas.*

*Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak ez du eratzen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eskubide absolutu gisa, baizik eta muga batzuen mende, besteak beste 21. artikuluan adierazten dituenen arabera, informazioa eskuratzea legez mugatu dezaketen zenbait gai zerrendatzen baititu, hala nola interes ekonomikoak eta komertzialak, merkataritzako edo industriako datuen konfidentzialtasuna eta erabakiak hartzeko prozesuetan eskatutako konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.*

*La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia no configura el derecho de acceso a la información pública como un derecho absoluto sino sujeto a algunos límites, entre otros, los que señala en su artículo 21 que relaciona una serie de materias en las que podría limitarse legalmente el acceso a la información, entre las que se incluyen los intereses económicos y comerciales, la confidencialidad de los datos de carácter comercial o industrial y la garantía de la confidencialidad o el secreto requerido en procesos de toma de decisión.*

Ildo horretan, Bizkaira erakarritako enpresen izenei buruzko informazioa argitaratzeak, enpresa horien komunikazio-planetatik kanpo eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza publikoak eskuratu gabe, ekintzaileak eta enpresak Bizkaira erakartzeko gaitasuna bera zailtzen duela uste da, izan ere, beren merkataritza-, industria- eta korporazio-estrategien alderdi batzuk ezagutaraztea edo jakinaraztea dakar; horiek ezagutuz gero merkatuan duten posizioan eta produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko eta saltzeko politikan eragina izan dezakete.

En este sentido, la publicación de la información relativa a los nombres de las empresas atraídas a Bizkaia, fuera de los planes de comunicación de dichas empresas y sin darse la circunstancia de que hayan accedido a subvenciones públicas de la Diputación Foral de Bizkaia, se considera que dificulta la propia capacidad de atracción de personas emprendedora y empresas a Bizkaia ya que supone revelar o pueden revelar aspectos de sus estrategias comerciales, industriales y corporativas que, de ser conocidos, podrían afectar a su posición en el mercado y a su política de comercialización y venta de productos y servicios.

Ikuspuntu horretatik, zalantzarik gabe, informazio hori zabaltzea kaltegarria izan liteke BEAZ foru sozietatearekin harremanak izan dituzten enpresen interes ekonomiko eta komertzialentzat.

Desde este punto de vista, no hay duda de que la divulgación de esta información podría resultar lesiva para los intereses económicos y comerciales de las empresas que han mantenido relaciones con la sociedad foral BEAZ.

Erabakiak hartzeko prozesuetan eskatzen den konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermeari dagokionez, bai Bizkaira erakarritako startupek etorkizunean hartu beharreko erabakiei dagokienez, bai BEAZek, erakarritako startupekin duten harremanean, garatu beharreko jarduerei buruzko erabaki-prozesuei dagokienez, uste da diskrezioa behar dela prozesu horiek Bizkaian kokatzeko erabakiak eta jardueren hasiera behar bezala amaitu ahal izateko.

En relación a “la garantía de la confidencialidad o el secreto requerido en procesos de toma de decisión”, tanto en lo relativo a la toma de decisiones futuras por parte de las startups atraídas a Bizkaia, como a los propios procesos de decisión sobre las actuaciones desarrollar por BEAZ en su relación con las startups atraídas se considera que son procesos que requieren de discreción para que las decisiones de su localización en Bizkaia y el inicio de sus actividades pueda llegar a buen fin.

Orobat, ulertzen da kasu honetan ez dagoela informazioa zabaltzea justifikatzen duen interes publiko edo pribaturik, BEAZek Bizkaira startupak erakartzeko garatutako jardueretan parte hartu duten startup horien interes ekonomiko eta komertzialei eragingo liekeen kaltearen gainetik.

Asimismo, se entiende que no hay en este caso un interés público o privado que justifique la divulgación de la información por encima del perjuicio que la misma causaría a los intereses económicos y comerciales de las startups que han participado de las actividades para la atracción de startups a Bizkaia desarrolladas por BEAZ.

Bestalde, azpimarratu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZ foru-sozietateak jendaurrean aurkeztu zituztela beren urteko jarduerak eta lortutako emaitzak, kasu honetan argi geratzen den bezala; izan ere, galdera hori enpresentzako zerbitzuen eta BEAZ foru-sozietateak kudeatutako dirulaguntzen programen eraginaren balantzea eta analisia egiteko prentsaurreko baten ondoren egin zen.

Por otra parte, cabe destacar que la Diputación Foral de Bizkaia y la sociedad foral BEAZ presentan públicamente sus actividades anuales y los resultados conseguidos, como queda patente en este caso ya que la pregunta se formuló tras una rueda de prensa en la que se ofreció un balance y análisis de impacto de los servicios a empresas y los programas de subvenciones gestionados por la sociedad foral BEAZ.

*Balantze horretan, besteak beste, BEAZek Bizkaira startupak erakartzearekin lotuta garatutako jarduerei buruzko informazioa eman zen, eta, oro har, honako hauek adierazi ziren: erakarritako startup kopurua, jarduera-sektoreak…""*

*En este balance se informó, entre otras cuestiones, sobre las actividades desarrolladas por BEAZ en relación con la atracción de startups a Bizkaia, indicándose en términos generales: número de startups atraídas, sectores de actividad…"*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENENGOA.- Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu da (aurrerantzean, *1/2016 Foru Araua, Gardentasunari buruzko Foru Araua edo Foru Araua*).

29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta (biak foru arau honetakoak), Bizkaiko Foru Aldundiak, foru erakunde autonomoek, foru erakunde publiko enpresarialek, foru fundazioek, foru partzuergoek eta aurretik aipaturikoen desberdinak diren zuzenbide publikoko bestelako foru erakundeek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzen badu Erreklamazio Batzordea izango da erreklamazioak ebazteko eskumena izango duena.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren ("*128/2016 Foru Dekretua*") bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan*

PRIMERO. -La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, "*Norma Foral 1/2016*", "*Norma Foral de Transparencia*" o "*Norma Foral*").

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

*ezarritakoaren arabera.*

Kasu honetan, Ekonomia Sustatzeko Sailak, zehazki Ekintzaileetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak, jendaurreko informazio-eskeari emandako erantzunaren aurrean jarritako erreklamazio baten aurrean gaude. Erreklamaziogileak uste du eskaera hori osatu gabe dagoela.

En el caso que nos ocupa, nos encontramos frente a una reclamación interpuesta ante la contestación remitida por el Departamento de Promoción Económica. en concreto la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial a una solicitud de información pública que el ahora reclamante entiende incompleta.

BIGARRENA.- 1/2016 Foru Arauaren 18.1 artikuluan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen die pertsona fisiko eta juridikoei. Foru arau bereko 17-2 artikuluaren arabera, informazio publiko gisa ulertzen da: "( .. ) *foru arau honen aplikazio eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (…)*".

SEGUNDO.- La Norma Foral 1/2016 reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17-2 de la misma Norma Foral, como: "( .. ) *cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones ( …)*".

Lege-testu bereko 20., 21. eta 22. artikuluek, berriz, informazio-eskaerak onartzea ezinezkoa dela adierazten dute, adibidez, egiten ari direlako edo lagungarriak edo osagarriak direlako, edo eskatutako informazioa ematea bidezkoa ez delako, dela datuak babesteko eskubidea gailentzen delako, dela informaziorako eskubidea erabiltzeko beste muga batzuk daudelako.

Por su parte los artículos 20, 21 y 22 del mismo texto legal señalan diversos supuestos en los que no procede admitir las solicitudes de información, por ejemplo, por estar en curso su elaboración o por tener carácter auxiliar o de apoyo; o no procede facilitar la información solicitada bien porque prevalece el derecho a la protección de datos o por concurrir otros límites al ejercicio del derecho a la información.

HIRUGARRENA. Aurreko zuzenbideko oinarrian eta ebazpen honen aurrekarietan adierazitakoa kontuan hartuta, honako hau adierazi behar da:

Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 6an prentsa-oharrean argitaratutakoaren arabera, 2022ko ekitaldian *"17 startup erakarri ziren Bizkaira, eta horiei beste 8 gehituko zaizkie urteko lehen hiruhilekoan"*.

TERCERO. Teniendo en cuenta lo señalado en el fundamento de derecho anterior, así como en los antecedentes de la presente resolución, cabe señalar lo siguiente:

De conformidad con lo publicado por la Diputación Foral de Bizkaia en nota de prensa el 6 de marzo de 2023, en el ejercicio 2022 *"se contribuyó a la atracción a Bizkaia de 17 startups a las que se*

*sumarán otras 8 en el primer trimestre del año."*

Eta aipaturiko prentsa-oharraren aurrean, erreklamatzaileak eskatu du Bizkaian ezarri diren lurraldetik kanpoko startup guztien izenak emateko, uste baitu lurraldera "erakarri" direla adierazten diren guztiak azkenean Bizkaian ezarri direla, eta eskatzen den informazioa publikoa dela.

Y. ante la citada nota de prensa, el reclamante solicita que se le facilite el nombre de todas las startups de fuera del territorio que se han implantado en Bizkaia, entendiendo que todas las que se indica que han sido "atraídas" al territorio han acabado finalmente implantándose en Bizkaia, y que la información que se solicita es por ello pública.

Ekonomia Sustatzeko Saileko Enpresa Ekintzailetzako eta Lehiakortasuneko Zuzendaritzak, hala ere, –printzipioz mugarik gabe– eskatutako informazioa eskuratzeko baimena eman arren, 5 startupen izena bakarrik adieraziz erantzun du –laguntza publikoak eskatu dituztenak eta haien egoitza iragarri dutenak–, eta azaldu du ez dela bidezkoa gainerakoen izena ezagutaraztea, ezarpena garapen-maila desberdinetan dagoelako, eta horrek ez duelako ahalbidetzen enpresek edo enpresaburuek dituzten komunikazio-planetatik kanpo zabaltzea.

La Dirección de Emprendimiento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica, no obstante autorizar -en principio sin limitaciones- el acceso a la información solicitada, responde indicando únicamente el nombre de 5 startups -las que han solicitado ayudas públicas y han publicitado su domicilio- y explicando que no procede dar a conocer el nombre de las restantes por encontrarse la implantación en distintos grados de desarrollo que no permiten su divulgación fuera de los planes de comunicación que las propias empresas o empresarios tengan.

Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak azalpenak eman baditu ere,
uste du bere eskura jarri den informazioa partziala dela eta, are gehiago, informazio jakin bat ezkutatzen zaiola. Eta erreklamazio hau egin du, eta, ebazteko, aztertu behar da ea informazio hori eskuratzeko eskubidea kendu zaion edo, eskatutako administrazio-organoak defendatzen duen bezala, zilegi den informazioaren zati horretarako sarbidea mugatzea.

Pese a las explicaciones de la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial, el
considera que la información que se ha puesto a su disposición es parcial e, incluso, que se le oculta cierta información; y formula la presente reclamación, para cuya resolución debe analizarse si, efectivamente, se le ha privado de información a la que tiene derecho a acceder, o si, como defiende el órgano administrativo requerido, es legítimo limitar el acceso a esa parte de la información.

Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak Batzorde honi igorritako txostenean adierazten duenez, Bizkaian ezartzeko interesa duten ekintzaileak eta enpresak erakartzeko prozesua hainbat fasetan

Indica la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial en el informe remitido a esta Comisión que el proceso de atracción de personas emprendedoras y empresas interesadas en establecerse en Bizkaia se

garatzen da, hasierako harremanetik Bizkaian instalatu arte, gure lurraldean jarduera hasi arte eta/edo dirulaguntzak eskuratu arte, eta prozesu horretan guztian zehar, ekintzaile edo enpresa bakoitzarekiko harremana eta proiektu bakoitzari buruzko informazioa ez da sarbide publikoko informazioa.

desarrolla en diferentes fases desde el contacto inicial hasta su instalación en Bizkaia, el inicio de la actividad en nuestro territorio y/o el acceso a subvenciones, y que, durante todo este proceso, la relación con cada persona emprendedora o empresa, así como la información sobre cada proyecto, no es una información de acceso público.

Era berean, azpimarratzen da kaltegarria izan daitekeela Bizkaira erakarritako enpresen izenei buruzko informazioa argitaratzea, enpresa horien komunikazio-planetatik kanpo eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza publikoak eskuratu gabe; izan ere, haien merkataritza-, industria- eta korporazio-estrategien zenbait alderdi ezagutaraztea dakar. Hori ezagutuz gero, merkatuan duten posizioan eta produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko eta saltzeko politikan eragina izan dezake, eta enpresa horien interes ekonomiko eta komertzialetarako kaltegarria izan daiteke.

Se incide también en que la publicación de la información relativa a los nombres de las empresas atraídas a Bizkaia, fuera de los planes de comunicación de dichas empresas y sin darse la circunstancia de que hayan accedido a subvenciones públicas de la Diputación Foral de Bizkaia, puede ser contraproducente ya que supone revelar aspectos de sus estrategias comerciales, industriales y corporativas que, de ser conocidos, podrían afectar a su posición en el mercado y a su política de comercialización y venta de productos y servicios, y resultar lesivo para los intereses económicos y comerciales de dichas empresas.

Egia da Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak ez duela eratzen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eskubide absolutu gisa, baizik eta muga batzuen mende, besteak beste 21. artikuluan adierazten dituenen arabera, informazioa eskuratzea legez mugatu dezaketen zenbait gai zerrendatzen baititu, hala nola interes ekonomikoak eta komertzialak, merkataritzako edo industriako datuen konfidentzialtasuna eta erabakiak hartzeko prozesuetan eskatutako konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.

Es cierto que la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia no configura el derecho de acceso a la información pública como un derecho absoluto sino sujeto a algunos límites, entre otros, los que señala en su artículo 21 que relaciona una serie de materias en las que podría limitarse legalmente el acceso a la información, entre las que se incluyen los intereses económicos y comerciales, la confidencialidad de los datos de carácter comercial o industrial y la garantía de la confidencialidad o el secreto requerido en procesos de toma de decisión.

Muga hori publizitate aktiboaren mende dauden datuei, informazioei edo edukiei dagokie, bai eta sarbide-eskubidearen xede den informazio publikoari ere.

Este límite se refiere tanto a los datos, informaciones o contenidos sometidos a publicidad activa, como a la información pública objeto del derecho de acceso.

Hori bai, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen mugak, 1/2016 Foru

Eso sí, las limitaciones al derecho de acceso a la información pública que introduce el

Arauaren 21. artikuluak ezarritakoak, salbuespenak dira irispideraren aldekoa den printzipio orokorrarekiko, eta, beraz, interpretazio murriztailea egin behar zaie.

art. 21 de la Norma Foral 1/2016 son excepciones al principio general que es favorable al acceso y, como tales, deben ser objeto de interpretación restrictiva.

1/2016 Foru Arauaren 21. artikulu horrek hitzez hitz dioenaren arabera: *"Informaziorako sarbidea ukatu ahal izango da…"*, hau da, jasotzen duen informaziorako sarbidea ukatzeko arrazoiak nahierara aplikatzekoak dira. Aukerako egintza da.

De acuerdo con la literalidad del art. 21 de la Norma Foral 1/2016 *"Se podrá denegar el acceso a la información …"*, esto es, las causas para denegar el acceso a la información que contempla son de aplicación discrecional. Se trata de un acto potestativo y facultativo.

Eta, aipatutako xedapenaren hitzez hitzeko zehaztasunarekin bat etorriz, gatazkan dauden interesak haztatu behar dira, eta informazio hori eskuratzeak babestutako interes juridikoari benetako kalte eraginkorra eragin diezaiokeela egiaztatu.

Y. de acuerdo también con la literalidad del mencionado precepto, se deben ponderar los intereses en conflicto, y acreditar que el acceso a dicha información puede causar un perjuicio real y efectivo del interés jurídico protegido.

Azkenik, 21. artikuluaren 3. paragrafoak adierazten du muga horien aplikazioak proportzionatua eta zaindu beharreko helburuari egokitua izan beharko duela, Foru Arauan eta aplikatu beharreko legeria orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Finalmente, señala el apartado 3 del artículo 21 que la aplicación de estos límites deberá ser proporcionada y ajustada a la finalidad que se deba preservar, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral y en la legislación general que sea de aplicación.

Beraz, 21. artikuluko edozein alegaziok baldintza bikoitza du, eta aplikatzaileak ondoz ondoko bi azterketa egin behar ditu: kaltearen testa eta interesaren testa.

Por lo tanto, cualquier invocación del artículo 21 tiene un doble condicionante y requiere la realización por el aplicador de dos exámenes sucesivos: test del daño y test del interés.

Lehenengoaren bidez, balizko kalte edo lesioaren probabilitatea egiaztatzen da, eta kausazko lotura bat dagoela eskatzen den informaziorako sarbidearen eta alegatutako kaltearen artean; eta, bigarrenaren bidez, egiaztatzen da ea kasu horretan babestutako interesetik gorako interesik badagoen, eskatutako sarbidea justifikatzen duen muga aintzat hartuz.

A través del primero se comprueba la probabilidad del hipotético perjuicio o lesión y la existencia de un nexo causal entre el acceso a la información que se solicita y el perjuicio alegado; y, mediante el segundo se comprueba si existe en el caso algún interés superior al protegido con la limitación que justifique el acceso solicitado.

Bada, kasu honetan gatazkan dauden bi interesak baloratuta eta haztapena eginda, arrazoizkoa dirudi Ekintzailetza eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritzak alegatzen duen justifikazioa, oraingoz Bizkaiko Lurralde Historikoan ezartzea izapidetzen ari diren

Pues bien, valorados en este caso los dos intereses en conflicto y realizada la ponderación, parece razonable la justificación que alega la Dirección de Emprendimiento y Competitividad Empresarial para que -de momento- no se

startup guztien izenak ez ezagutarazteko, beren komunikazio-politika propioak alde batera utzita; izan ere, enpresa horien interes ekonomikoak babesteak lehentasuna izan behar du, herritarrek izan dezaketen interesaren gainetik, lurraldera erakarritako mota horretako sozietateak zehazki zein diren jakitearen gainetik. Nolanahi ere, informazio hori aurrerago eman ahal izango da, enpresak berak ere horren berri ematen duenean.

dé publicidad al nombre de todas las *startups* que están tramitando su implantación en el Territorio Histórico de Bizkaia al margen de sus propias políticas de comunicación, dado que debe prevalecer la protección de los intereses económicos de estas empresas por encima del interés que la ciudadanía pueda tener sobre el conocimiento de cuáles son concretamente las sociedades de este tipo que se han visto atraídas hacia el territorio; sin perjuicio, eso sí, de que pueda facilitarse esa información más adelante, cuando la propia empresa lo publicite también.

Azken batean, informazioa geroratzea da, eta uste dugu hori justifikatuta dagoela; izan ere, informazio horren ezagutza orokorrak, une honetan, kalte egin diezaieke ukitutako sozietateen interes ekonomiko eta komertzialei, eta, gainera, eragin negatiboa izan dezake gure lurraldean ezartzeko asmoa agerian uztea nahi ez duten beste erakunde batzuen hurbilketan.

Se trata, en definitiva, de un diferimiento en la información que entendemos justificado porque su conocimiento general en este momento puede perjudicar intereses económicos y comerciales de las sociedades afectadas y puede, además, tener un impacto negativo en la aproximación de otras entidades que no desean que se revele su intención de establecerse en nuestro territorio.

Bestalde, Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak berariaz adierazi du eskaini ezin duen informazioa, eta erabakia behar bezala arrazoitzeko betebeharra betez ez jakinarazteko arrazoiak justifikatu ditu.

Por otra parte, la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial ha indicado expresamente la información que no está en disposición de ofrecer y ha justificado los motivos por los que no se da a conocer cumpliendo con su obligación de motivar debidamente su decisión.

Hala ere, ez gatoz bat informazio hori ez emateko arrazoia enpresaburuek edo enpresek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza publikoak eskuratu ez izana izatearekin, Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak argudiatzen duen bezala; izan ere, enpresa horien eta etorkizuneko beste hautagai batzuen interes ekonomiko edo komertzialak babestea beharrezkoa ez balitz, berdin litzateke dirulaguntza publikoak jasotzea ala ez.

No compartimos, sin embargo, que la motivación para no ofrecer esa información sea que los empresarios o las empresas no hayan accedido a subvenciones públicas de la Diputación Foral de Bizkaia como argumenta la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial; dado que, si no fuese necesaria la protección de los intereses económicos o comerciales de las empresas en cuestión, y de otras futuras candidatas, sería indiferente que perciban o no subvenciones públicas.

Izan ere, ezin dira nahastu Arauaren 2.1

Y es que no se puede confundir la

artikuluak Bizkaiko Foru Aldunditik aurrekontu-ekitaldi batean zenbateko jakin batera iristen diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuei ezartzen dien publizitate aktiboaren betebeharra eta Foru Aldundiari berari dagokion informazio-betebeharra.

obligación de publicidad activa que impone el artículo 2.1 de la Norma a las entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen determinadas cuantías, con la obligación de información que incumbe a la propia Diputación Foral.

LAUGARRENA.- Sarbidea baimentzen zuen ebazpenaren edukiari helduz, nahiz eta eranskinean azaltzen zen zer informazio eskaintzen zen eta zer ez, enpresa batzuen izenak ez emateko arrazoiak justifikatuz, egia da formalki baimentzen zuela informazio osoa eskuratzea, eta gero ez da eskatzailearen eskura jartzen.

CUARTO.- Entrando ya en el contenido de la resolución por la que se autorizaba el acceso, pese a que en documento Anexo explicaba la información que se ofrecía y la que no, justificando los motivos por los que no se facilitaban los nombres de algunas de las empresas, lo cierto es que formalmente autorizaba el acceso a la información íntegra, que después no se pone a disposición del solicitante.

Hala ere, nahiz eta egokiagoa zatekeen ebazpenak informazio-eskaera partzialki baiestea eta bere txosten motibatzailean jasotzea demandatu guztiak eskuratzeko arrazoiak, zalantzarik gabe erreklamatzaileak ez du kalterik jasan irregulartasunaren ondorioz.

No obstante, si bien hubiera sido más acertado que la resolución estimara parcialmente la solicitud de información y recogiera en su propio informe motivador las causas por las que no se daba acceso a la totalidad de lo demandado, no cabe duda de que el reclamante no se ha visto perjudicado por la irregularidad.

Adierazitako guztiagatik, Batzorde honen iritziz, Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa eman behar zen, egindako informazio publikoa eskuratzeko eskaerari erantzunez; gainerakoei dagokienez, berriz, 1/2016 Foru Arauaren 21.2 artikulua da ezartzekoa.

Por todo lo señalado, a juicio de esta Comisión la información ofrecida por la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial es la que estaba obligada a ofrecer atendiendo a la solicitud de acceso a información pública formulada; concurriendo en cuanto al resto el motivo de denegación del art. 21.2 de la Norma Foral 1/2016.

Bestalde, eta ukapena arrazoitzeko betebeharrari dagokionez, informazioa eskuratzeko baimena ematen duen ebazpenaren 1. eranskinean jasotzen den justifikazioa laburra da, baina nahikoa, eskatzailearen eskura jartzen ez den informazioaren zatia eta informazioa eskuratzeko aukera ukatzeko arrazoia adierazita.

Por otra parte, y en cuanto al deber de motivar la denegación, la justificación que se recoge en el Anexo 1 de la resolución por la que se autoriza el acceso a la información es sucinta pero suficiente, con indicación de la parte de la información que no se pone a disposición del solicitante y la razón por la que se deniega el acceso a ella.

Aurreko guztia ikusita, ezetsi egin behar da jaunaren erreklamazioa, uste baita Ekonomia Sustapen Saileko Ekintzailetzako eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiak erreklamaziogilearen esku utzi duela behartuta zegoen informazioa; eta eman ez zaion eta orain erreklamatzen den informazioari dagokionez, ukatzeko arrazoia dago (1/2016 Foru Arauaren 21.2 artikuluak ezarritakoa).

A la vista de todo lo anterior, procede desestimar la reclamación del , por entender que la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica ha puesto a disposición del reclamante la información a la que estaba obligada; y respecto de la información que no se le ha facilitado y que ahora se reclama, concurre causa de denegación prevista en el art. 21.2 de la Norma Foral 1/2016.

Hori guztia dela eta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak ebazpen hau ematea adostu du:

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente

## EBAZPENA

## RESOLUCIÓN

<u>Lehena.</u>- jaunak aurkeztutako erreklamazioa ezestea, Ekonomia Sustatzeko Sailak 2023ko martxoaren 6an egindako eskaerari erantzunez emandako informazioa dela-eta.

<u>Primero</u>. - Desestimar la reclamación formulada por ante la información facilitada por el Departamento de Promoción Económica en contestación a su solicitud de 6 de marzo de 2023.

<u>Bigarrena.-</u> Ebazpen hau erreklamatzaileari eta Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonaleko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea. Halaber, Laguntza Unitateko Estrategia Digitalaren eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

<u>Segundo</u>. - Notificar esta resolución al reclamante y a la Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de Apoyo al Diputado General.

<u>Hirugarrena.</u>– Ebazpen hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, BI (2) HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik

<u>Tercero</u>. –La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a

aurrera.

contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz (128/2016 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordearen Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena).

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.